Mari Jose Olaziregi

“Kritiko batek zintzotasunez jokatzen jakin behar du”

Mari Jose Olaziregi literatura irakasle eta kritikari bezala da ezaguna. Orain-goan Renoko Unibertsitateak abiatutako *Basque Literature Series* bildumaren abenturan sartu da. Lehenengo emaitza *An Anthology of Basque Short Stories* izan zen, duela gutxi euskaraz kaleratu dena (*Mende berrirako ipuinak Antologia*-Erein). Munduan zehar euskal idazleak ezagutarazteko xedea du bildumak, eta Olaziregik ilusioa (eta lana) du horretarako bidea.

–*An Anthology of Basque Short Stories* lehenengo ingelesez argitaratu zen Renoko Unibertsitateak abiatutako *Basque Literature Series* bildumaren baitan. Zergatik?

–Linda White eta biok gara Basque *Literature Series* bildumaren zuzendariak. Baina antologia hau nik prestatu nuen. Lindak egin duena da ingelesezko testu zuzenketa. Kolekzio hau martxan jarri eta iruditu zitzaigun ipuinen bilduma bat egitea oso interesgarria zela esparru anglosaxoira begira, bi arrazoiengatik: batetik, antologia batean sartu ahal dituzulako idazle batzuk, eta ez bakarra, eta orduan aukera gehiago eskaintzen dizkizu; eta bestalde, ipuingintzak tradizio handia duelako mundu anglosaxoian eta pentsatu genuen genero erakargarria izango zela. Eta ingelesa zergatik? Ingelesa ere geurea delako; Koldo Mitxelenak zioen gaztelera ere geurea dela, eta Joseba Zulaikak esaten du gaur egun kontuan hartzen baduzu diasporan Estatu Batuetan zenbat euskaldun dauden ingeles hiztun ingelesa badela pixka bat geurea ere. Horrez gain, ingelesa hizkuntza estandarra da munduan eta erraztu egiten dizu zabalkuntza aldetik.

–Gure idazleak ezagunak al dira mundu anglosaxoian? Arrakasta izan al du liburuak?

–Bai, izan du. Ahalegin handia egin dugu banaketan. 700 ale bidali ditugu doan munduko liburutegi, ikerketa zentro eta unibertsitatetara. Gure helburua horixe izan baita, ezagutzera ematea. *Basque Literature Series*ek ez du helburu komertzialik. *Los Angeles Times*en kritika bat egin zion Mark Kurlansky-k eta ondo jartzen zuen liburua. Gero, kritika onak jaso ditut antologia irakurri duten kritikari eta editore anglosaxoiengandik. Eta esan dezaket momentu honetan, adibidez, San Petersburgoko itzultzaile bat, editore dena aldi berean, interesatua dagoela errusierara itzultzeko. Alemaniar bat ere bai. Hungariar bat ere bai. Eta horretaz gain bi editorial ingelesek irakurri dute eta balorazio oso ona egin dute, harridura agertu dute: bitxia iruditu zaie oso estilo diferenteak daudelako liburuan eta euskal literaturaz ez dutelako orain artean gauza gehiegirik entzun. Bestalde, uztailean aterako da antologia gaztelaniaz, Lengua de Trapo argitaletxearekin.

–Ipuin lehiaketa askotako epaimahaitan parte hartu izan duzu. Nolako lanak aurkezten dira lehiaketetan? Eta lehiaketek laguntzen al diete egile berriei bultzada ematen?

–Esaten da euskal ipuingintzaren nolabaiteko urrezko aroa 80ko hamarkadan eman zela, ugaltasun eta sendotze bat eman zelako, *Panpina ustela* eta bereziki *Pott* banda etorri zirelako. Urte horietan lehiaketa ugaritasun handia eman zen. Gaur egun ipuingintza bereziki saritzen duten lehiaketak badira, baina gutxiago. Bestalde, esaten da lehiaketak garrantzitsuak direla idazle gazteentzat, bultzada ematen dielako idazten jarraitzeko, onespena eskaintzen dielako eta hori guztia. Gaur egun hori gertatzen den arren, komunikabideek lehen ez zuten protagonismoa dute. Sari bat irabazi eta inon ez bada azaltzen irabazi duzula eta elkarrizketa ez badizute egiten eta liburu hori ez bada aipatzen... ia ezerezean geratzen da.

Bestalde, azken urteetan sari asko eman gabe geratu dira. Eta krisiaz ere mintzatzen hasi ziren batzuk. Uste dut horrelako baieztapenak egiteko datu gehiago behar direla. Belaunaldi kontzeptua hain auzitan dagoen honetan, ezin esan belaunaldi berririk ez datorrenik. Gurean badira ibilbide sendoa egiten ari diren idazle gazte ezagunak (Cano, Uribe...) edo argitalpen bakarrarekin sarrera aipagarria egin dutenak (Jaio, Rodriguez...). Oro har, ordea, esan daiteke argitaletxeetan kontzesio asko dagoela oraindik, galbahe gutxi pasatako lan asko kaleratzen dela. Gainera, garaiak aldatu egin dira. Lehen argitaletxe bat kalitatearekin lotzen bazenuen, gaur egun ez. Argitalpen erritmo bati eutsi behar diote eta kalitate eskaseko lanak ere argitaratzen dituzte.

–Zure hitzak dira *Argia*n esanak: “Euskal literatura ez dago euskal gizartean errotuta. Zenbat jende entzuten duzu eleberri edo poema bati buruz hitz egiten autobus batean?”. Eta ipuin bati buruz? Ugaritzen ari diren antologia hauek laguntzen al diote ipuinaren osasunari?

–Egiten diren antologia gehienak enkarguzkoak dira gaur egun: marihuanaren ingurukoak, erotismoari lotuak... eta horietan, egia da, denetarik dagoela. Antologietan orokorrean kalitatearekin kontuz ibili behar da. Antologia hau egiteko abiapuntua, berriz, dagoeneko argitaratuta zeuden ipuinen arteko hautapena izan da. Hiru irizpide erabili ditut nik antologia honen ipuinak aukeratzerakoan: garaia, aukeratutako gehienak azken urteotan argitara emandakoak baitira, nahiz eta bi salbuespen badiren (Iturbe eta Sarrionandiarenak lehenagokoak dira); luzera: neurri berdintsukoak jartzen ahalegindu gara, baina mikroipuinak aukeratzen genituenetan, idazle beraren ipuin bat baino gehiago sartzen ahalegindu gara oreka gordetzearren; eta azkenik, baina batez ere, kalitatea.

–Ba al dago inor edo ezer faltan?

–Noski egongo dena. Kritikariak zintzotasunez jokatu behar du eta hasieratik onartu behar du aukera berea dela, eta berea den neurrian, beti dagoela arriskua hautapenarekin hanka sartzeko. Kritikari batek jakin behar du beti uzten duela norbait kanpoan. Antologia honi dagokionez, asebete nauten ipuinak hautatzen ahalegindu naiz.

–Zer lortu nahi zenuen *Mende berrirako ipuinen Antologia*rekin?

–Helburua ipuin hauei kanpoan irteera ematea zen, zirkulazioan jartzea. Izen batzuk ezagunak ziren arren, (Bernardo Atxaga esaterako) sorpresa izan dira hainbat lekutan. Gure lana amateurra izan da erabat. Ni irakasle eta ikertzailea naiz. Ez agente literarioa. Ez genuen diru berezirik hau egiteko eta Renoko Euskal Ikasketen Zentroaren ekimena izan da. Testu liburu, ikastaro eta besterako dituzten diru-laguntzetatik euskal literatura itzulia eskainiko zuen sail baterako dirua gordetzea erabaki zen. Gero eta ikasle gehiago dago bertan, graduondokoak on-line ematen dira eta katalogoan iraungo zuen literatura sail bat eduki nahi genuen. Zinez da bitxia antologiarekin egiten ari garen ibilbidea: lehenengoz ingelesez, gero euskaraz (jatorrizko ipuinak), gero gaztelaniaz....eta etorriko direnak. Egia aitortuko badizut, ilusioz ari gara *Basque Literature Series*en, ilusio gehiago dugu baliabideak baino. Eusko Jaurlaritzak ematen du dirua itzulpenak ordaintzeko. Hortik aurrerakoa, bereziki promozioari dagokiona, gure ekimen pertsonala da: argitaletxeetara gutunak bidali, elkarrizketak eskaini, itzultzaileak bilatu, Newsletterrean artikuluak atera... Poliki baina liburuak mugitzen ahalegintzen gara, hori da gure helburua, lan duina egitea (itzulpen txukunak, itxura erakargarriko liburuak...).

–Zergatik ez ditugu egun aldizkari literario gehiago edota euskarazko gehigarri literariorik?

–Merkatuak duelako garrantzia. Lehen pasioz bizitzen zen literatura hemen: Pott, talde literarioak, aldizkari literarioak... denetarik zen. Gaur egun salmentek inporta dute batez ere. Aspalditik botatzen dugu faltan literatur gehigarri sendo bat. Behin egunkari bateko zuzendariak horretarako deitu zidan hain justu, gehigarri batek neure iritziz nolakoa izan beharko lukeen galdetzeko. 5 orriko literatur gehigarri baten egituraketa aipatu nionean (hainbat kritikariren kolaborazioa, nobedadeak iruzkintzeko konpromisoa...) ezinezkoa zela esan zidan. Ez zegoela interesik ezta baliabiderik ere, horixe bota zidan.

–“Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura” liburuan esaten zenuen emakumeek idatzitako literaturak ez dituela aukera berak. Uste duzu zer edo zer aldatu dela?

–Gaur egun emakume idazleen arazoa ez da publikatzea, irautea baizik. Baina hori idazle guztien erronka da, ez emakumezkoena bakarrik. Publikatzeko arazorik ez duten arren, azterketetan ia ez dira emakumeek idatzitako lanak agertzen. Eta badituzu emakume idazle onak: Landa, Meabe, Oñederra, Urretabizkaia, Arkotxa... esate baterako. Emakumeen lanak orokorrean gutxiago aztertu izan dira, eta azterketa gutxi egoteak ondorio zuzena eduki dezake euren kontsiderazioan. Hau da, literatur lan baten gainean idatzitako kritika batek lan hori legitimizatu egiten du nolabait, instituzio literarioak kontuan hartzen duela adieraz dezake.

Bada fenomeno bat gainera ikertu beharrekoa: Urruzuno eta Mitxelena lehiaketetako epaimahaietan egon izan naiz, eta bigarren hezkuntzako literatur lehiaketa horietan emakumeak dira, ezbairik gabe, gehien aurkezten direnak. Irabazleen artean ere emakumezkoak dira gehiengo. Kontua da horietako askok gero ez dutela idazten jarraitzen. Zergatik gertatzen da hori? Azterketa gehiago, datu bilketak...behar ditugu, gure literatur mundua hobeki ezagutzen lagunduko diguten ikerketak.

Izaskun Jauregi

Mari Jose Olaziregi. **Argazkipress-eko argazkia**

“Gaur egun emakume idazleen arazoa ez da publikatzea, irautea baizik. Baina hori idazle guztien erronka da”

Etorkizuneko proiektuak

Mari Jose Olaziregi etengabe hainbat proiektutan murgilduta dagoen kritikari eta irakaslea da. Orain esku artean dituenen artean, urrian Frankfurteko azokan aurkeztuko duten *Transcript* aldizkari elektronikoa aipatu digu. *Basque Literature Today* euskal narratibari eskainitako gehigarri monografikoa aurkeztuko dute bertan. Monografiko horretan 11 euskal idazleren lanak bilduko dira. *Transcript* aldizkaria *Literature Across Frontiers* erakundeak sortua da. Erakunde horren baitan hizkuntza gutxituetako literaturak promozionatzen dituzten hogei herrialdetako erakundeak daude eta beraien helburua literatura promozionatzea da. Honen barruan dago Committee for the Promotion of Basque Literature batzordea, zeina Euskal Editoreen Elkarteak eta EIZIEk osatzen duten.

I. J.